

SEGURTASUN ETA OSASUN POLITIKA

GRUPO URGATZI taldeak, lan arloko segurtasun eta osasunaren kudeaketa eginkorra burutze aldera, gainerako prozesuen ildo beretik garatuko diren printzipioak zehaztu ditu. Enpresako zuzendaritzak ondo daki burutzen dugun jarduerak pertsonen osasun eta segurtasunean eragina izan dezakeela, bai langileen, baita instalazioetan egon daitezkeen beste pertsona batzuen kasuan. Hori horrela izanik, laneko arriskuen prebentziorako kudeaketa sistema bat zehaztu du, honako oinarrien arabera:

- Langileen osasun eta segurtasunak eragina dauka gure enpresa-jardueran. Giza baliabideak egoera onean mantendu beharra dago; horrela, laneko arriskuen ondoriozko galera eta lege erantzukizunak murrizten dira.
- Prebentzio arloko jarduera arriskuen prebentziora eta saihestu ezin izan diren arriskuen ebaluaziora bideratuko da, batez ere.
- Prebentzio neurriak zehazteko, arriskuen jatorria aztertu beharko da. Hala badagokio, segurtasun kolektiboari emango zaio lehentasuna, indibidualaren aurretik, eta egon daitezkeen arrisku osagarriak hartuko dira kontuan. Azken horiek geure gain hartuko ditugu, soilik kontrolatu beharreko arrisku nagusiak baino askoz ere txikiagoak direnean eta beste aukera seguruagorik ez dagoenean.
- Prebentzioaren antolakuntza modu koherentean egingo da, teknika, lanaren antolaketa, lan-baldintzak, harreman sozialak eta laneko giroa kontuan hatuz.
- Egiteko hori inori eman aurretik, berau garatzeko segurtasun eta osasun arloko gaitasun profesionala baloratuko da.
- Araudi aplikagarrian adierazitako betetze-maila bermatuko da eta unean uneko teknika mailaren araberako segurtasun-estandar lorgarriak baloratuko dira.
- Langileek eskubidea dute laneko arriskuen prebentzio arloko gaietan aktiboki parte hartzeko. Horretarako, Laneko Arriskuen Prebentzioaren inguruko Legearen V. Kapituluan ezarritakoari jarraitu beharko diote.

Oinarriok erakunde osoan zabalduko dira eta helburuak zehazteko balioko dute. Helburuak urtero markatuko dira, etengabeko hobekuntza-irizpideen arabera eta erakundearen politika betetzen dela bermatzeko, enpresa-zuzendaritzaren eta enpresako langile guztien laguntzari esker.
